


## «Jorge Oteiza, creador integral» liburuak artistari buruzko gogoetak jaso ditu

Jorge Oteizaren inguruan duela lau urte Iruñeko Planetarioan egin ziren jardunaldietako hitzaldiak jasotzen dituen «Jorge Oteiza, creador integral» izeneko liburua aurkeztu zuten ostegunean Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta artista oriotarraren izena daraman Fundazioak. Oteiza eskultorea ez ezik, beste hainbat arlotan izandako eragina ere ekarri nahi du gogora lan honek, hainbat esparrutan egindako ekarpenak aztertuz.



## «Pandaren aita»ri buruzko proiektua saritu du aurten Caf-Elhuyarrek

Armand David panda hartza deskubritu zuen euskal biologo garrantzitsuaren biografia eta lana ezagutu ahal izango dugu aurki Caf-Elhuyarrek Kepa Altonagari aste honetan eman dion bekari esker. EHUko irakasleak 1826an Ezpeletan jaio zen misiolari lazaristaren bizitza eta aurkikuntzari buruzko proiektua aurkeztu zuen lehiaketara eta berak jaso du Caf-Elhuyarrek antolatutako lehen Beka Saria.

# SAGARDOAREN ISKANBILA

Heldu da aurten ere sagardoa dastazeko garaia. Une honetatik eta hiru hilabete luzeetan zehar sagardozaleei eta ez hain «zaleei» zabalduko dizkiete ateak sagardotegiek. Ia bost milioi litro ekoiztu dituzte aurtengo denboraldirako, eta, antza denez, sagarrek aurreko urteetan baino azukre kopuru handiagoa daukate.

Sagardogileek jakitera eman zuteenez, uda lehor eta eguzkitsua izan zela eta, uztaren hein handi bat galdu egin zuten, eta iraun zuten sagarrak gozoagoak omen dira. Hala eta guztiz ere, kalitate handiko sagardoa lortu dute aurten, kolore hori-berdeska eta zapore atseginekoa omen da. Baserriko edaria, azkenik kaletarron gustukoa bilakatu da, eta seguru baserritarrek zeresanik izango dutela kalekumeak sagardotegietan ikusten dituztenean. Baina, ezin ukatu sagardoa edateko

erraza dela, alkohol gutxi baitauka, apenas sei grado, eta janaria laguntzeko aproposa izaten da.

Aipatu beharra dago hau guztia gauzatzeko hamabi milioi kilo sagar zapaldu dituztela, batik-bat Gipuzkoa aldean. Migel Zapirain sagardogileak ederki aipatu bezala, kalitate aldetik «sektorea gero eta emaitza hobeak lortzen ari da. lan handia burutu duelako». Egia da sagardoaren kultura dezente aldatu dela azken urteotan. Halaber, egun sagardogileek esku artean daukaten negozioaren tamainaz jabetu eta gero asko profesionalizatu egin dira.

Dena den, txotx garaian sagardotegiak goraino beteta egoten direnez, askok negozioa izugarria dela uste izan arren, lekuen kostua oso handia da, eta garai honek gutxi irauaten du, nahiz eta tiraka luzatzen saiatu diren hainbat lekutan.

Apirilaren 31 arte ostiral eta larunbatetan jasoko dute jende gehiena, batez ere Donostialdeko sagardotegietan. Eta, gainera, neurri handi batean, Bizkaitik etorritako jendeak beteko ditu sagardotegiak.

Beraz, zorionez, gero eta gehiago hedatzen ari den ohitura da, ez bakarrik Euskal Herrian, beste herrialde batzuetara heldu baita gure ohitura honen berri. Hori diote bederen sagardogileek, antza denez ez baitute oraindik herriguneetan bizitzen den zalaparta ondoegi ezagutzen.

Izan ere, Hernani edota Astigarraga bezalako herri sagardozaleek jasaten duten inbasioa erraldoia izaten da, eta ez da txantxa bertako biztanleek aldaketaren bat izatea eguneroko bizimoduan asteburuak iritsi bezain pronto. Kontuz gero, denboraldi hasierak umore aldaketa bortitzak ekar ditzake eta. Exa-

jeratu gabe, lagun arteko liskarrak ohikoak izaten dira, une batzuetan norbere herriko tabernetan sartzeko aurretik entrenamendu gogor bat egin behar dela baitirudi, eta denak ez daude prestatuta. Denboraldia zabaltzeko egunak heldu bitartean, Hernaniko kiroldegiaurrean dagoen kartelari ez zioten askok erreparatzen. «Sagardoaren lurraldean zaude» jartzen du bertan, eta gaur egun pentsatzearekin bakarrik batzuetan aztoratu egiten dira bertako biztanleak.

Akaso norbaiti gehiegizkoak irudituko zaizkio goialdean botatuko argumentuak. Baina, herrietan agirian gelditu da fenomeno hau, eta tabernariak zein auzokideen elkarrekin mugimendu honen aurrean neurriak hartu behar direla erabaki dute. Nola? Esaterako, Hernanin sagardoaren garaia gainean dagoela tabernari, sagardogile, udaltzaingoa



## Jon Bilbaoren fondo bibliog Diputazioari utzi dio bere al

Jon Bilbao historiagile eta irakaslearen f...  
Foru Liburutegian dago ostegunaz gerozt...  
ok Bizkaiko Foru Aldundiari laga baitio a...  
tsua. Mundu osoan euskal gaiet buruz d...  
fondo hauek, eta irakaskuntzarako duten...  
dirutan, dohaintzaren zenbatekoa ehun m...  
adierazi du Josu Bergarak, Bizkaiko ahaldu...

# A

eta Alde Zaharreko Auzokideen Elkarte...  
artean bilera batzuk burutu baitituzte. Ez-  
tabaidarako gaiak, urtero errepikatzen di-  
renak, tabernen itxieraren ordutegiak, ka-  
leetan botatzen duten zaborra eta beira  
kopuru handia nola murriztu...

Hala ere, desadostasunak berehala agertu  
dira: tabernariek ez dute edaria plastikoz-  
ko basoetan atera nahi, udalak proposatu  
bezala. Ordutegiekin, dirudienez, hobeto  
konpondu dira eta, garbitasunari dago-  
kionez, komun eramangarriak ezarriko  
dituzte herriko gune nagusienetan.

Hartara, sagardoak eta bere inguruan era-  
tzen den giroak dena astintzen dutenera-  
ko zerbait berezia badaukala argi gelditu  
da. Upel artean aritzeko ordua iritsi da,  
eskasa baita denbora, eta herri sagardo-  
zaleko jendeak esan bezala, astean zehar  
gozatzen da gehien sagardotegietan.  
Arrazoia ez zaie falta. «Topa dagigun  
eta...» arnasa hartu bada ez bada. •

Nagore OLKOZ

